



ECO Friendly garbiketa, Riveraren garbiketa jasangarria



ERAKUNDE BULTZATZAILEA

Rivera limpieza integral y servicios auxiliares, S.L.



Kokapena

Jardintxikerra Kalea, 6, 48012 Bilbo, Bizkaia



Denborazko erreferentzia

2021eko apirila



Kategoria

052 - Barrualde-garbiketako zerbitzua



EKARPEN NAGUSIA

Bezereok eta langileek substantzia toxikoekiko duten esposizioa murrizten du

Bere ingurumen-jarduna eta -aurrerapena monitorizatzen ditu, ingurumenean duen inpaktua murrizteko ekintzak ezarriz

EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA

Europako Etiketa Ekologikoa ingurumena errespetatzen duten produktuak eta zerbitzuak sustatzeko borondatezko tresna da.


Normalean produktuetan ikusten dugu ingurumen-etiketa horren logotipoa (Europako lorea), baina zerbitzuetan ere erabiltzen da (ostatu turistikoko zerbitzuetan edo barrualdeak garbitzeko zerbitzuetan). Etiketak, beraz, merkatuarekin alderatuta ingurumen-hobekuntzagatik nabarmentzen diren zerbitzuak eta produktuak bereizten ditu. Horregatik, **Europako Etiketa Ekologikoaren lorearen bereizgarria daramaten zerbitzuak ingurumen-kalitateagatik nabarmentzen dira** ohiko zerbitzuak baino askoz neurri handiagoan.



Europako Etiketa Ekologikoa duten zerbitzuek kontuan hartutako ingurumen-hobekuntzek –garbiketa egiteko erabilitako produktuez gain– **zerbitzuaren bizi-ziklo osoa ere hartzen dute barnean:** ur-kontsumoa, sortutako hondakinen kudeaketa...

Europako Etiketa Ekologikoaren logotipoari esker, **erraza da** kontsumitzaileentzat aldi berean ekologikoa eta kalitatezkoa den zerbitzu bat identifikatzea. Gainera, Europako lorea erraz ezagutzen da, eta guztiz fidagarria da; izan ere, lorea daukaten zerbitzuek **eskakizun zorrotzak** bete dituzte, eta EBko etiketatze-sistemak ISO 14024 araua betetzen du.

Europako Etiketa Ekologikoa duten barrualde-garbiketako zerbitzuak bai ingurumen-portaerari bai **kalitateari dagokienez nabarmentzen dira**. Izan ere, punturik garrantzitsuenetako bat da **modu sistematiakoan inpaktu txikieneko lan egiteko modua berrmatuko duen kudeaketa sistema bat ezartzea**.



ZERBITZUA

Limpiezas Riveraren ECO Friendly zerbitzua jasangarritasunarekin konprometituta jarduteko eta lan egiteko modu bat da.

Zerbitzuak, ingurumena errespetatzeaz gain, pertsona guztientzako bizimodu osasungarria ahalbidetu nahi du. Bi kontzeptu horiek oso erlazionatuta daude, pertsonen osasuna oso lotuta baitago ingurune faktoreekin, hala nola airearen kalitatearekin, uraren garbiketarekin edo giroko gai kimikorik ezarekin.

Ingurumena errespetatzea kontzeptu zabala da berez.

Biodibertsitatearen babesa, hondakinen murrizketa, isurien murrizketa, garbiketaren sustapena eta abar hartzen ditu barnean. Bizitza osasungarriak, berriz, osasuna eta ongizatea babestea esan nahi du: pertsonak ingurune osasungarrietan bizitzea; eta pertsonak kalitateko airea arnastea, ur garbia edatea, janari segurua jatea...

Europako etiketa ekologikoarekin, Riverak erakusten du ECO Friendly garbiketak, besteak beste, gai kimiko kaltegarriak ezabatzen dituela, bezeroaren ur- eta energia-kontsumoa aurrezten duela eta hondakinen kudeaketa arduratsua ahalbidetzen duela.



Riveran, ingurumen-erantzukizunerako trantsizio hori eskaini nahi zaie bezero guztiei ECO Friendly garbiketaren bidez. Horregatik, bere zerbitzuak Europako Ecolabelarekin etiketatuta daude, horrela ahalik eta modu jasangarrienean egiten direla bermatuz. Hortik harago, enpresa gisa, jarduera osoa ECO Friendly filosofiarekin bat etortzeaz ere arduratzen dira. Garraio berdearen erabileratik bulego barruko birziklatzeraino.

ENPRESA ETA INGURUMENAREKIKO BERE KONPROMISOA

Rivera garbiketako eta zerbitzu osagarrietako enpresa bat da, eta bere helburua pertsonak **espazio garbi eta osasungarrietan** bizi eta lan egitea da, eta, gainera, bezeroaren eraikinean edo instalazioan beharrezkoak diren *facility services* delakoei konponbide integrala ematea. Hori guztia lasaitasun- eta konfiantza-giro batean.

Riveraren jarduera guztia funtsezko bi zutabek arautzen dute: kalitaterik oneneko zerbitzua eskaintzea, batetik, eta bai ingurumenean bai pertsonengan inpaktu positiboa izatea, bestetik. Premisa horretatik dator Riveraren ECO Friendly garbiketaren kontzeptua.

Etxebizitza-eraikinetan, bulegoetan, merkataritza-lokaletan eta eraikin korporatiboetan konponbideak ematen espezializatu da enpresa, duela 30 urte baino gehiagotik hona. Esperientzia baliotsuak eta egiten jakiteak, puntako teknikak bilatzeko gogoarekin batera, garbiketa-kontzeptu berri bat sortzeko aukera eman dio: ECO Friendly garbiketa.

Rivera Bilbon sortu zen 1988an, familia-enpresa gisa, eta pertsonen osasuna zaintzen duen premium garbiketako zerbitzu integralaren marka izateko jarrera argiarekin jaiotzen zen. Jarrera horri eutsiz, enpresa hazi egin da eboluzio natural bidez **ECO Friendly garbiketarantz**, merkatuak eskaintzen dituen baliabideak ikertuz, inbertituz eta optimizatuz.

Espazio eta egoera guztietarako garbiketa-zerbitzua izaten hasi zena, denborarekin bezeroak bere instalazioetan duen edozein beharri konponbidea emateko proposamen baterantz eboluzionatu du. Horregatik, Riverak *facility services* delakoak eskaintzen ditu, hala nola kontsumigarrien hornidura, lorezaintza, atezaintza edo hondakinak kentzea, guztiak ere bikaintasunean oinarrituta. Era berean, bezeroaren beharrak zein diren jakiteko, enpresak instalazioen auditoria ere eskaintzen du, baita epe ertain eta luzera egon daitezkeen agertokiak ere. Horren ondorioz, egoera-txosten bat egiten da, kontratazio-baldintzen agiriak, efizientzia hobetzeko zerbitzuak integratzeko planak eta ECO protokoloak idatzi ahal izateko gizarte-erantzukizunaren kudeaketan adierazleak eta emaitzak kontrolatzeko sistemak lortzeko.

Riverak Euskal Autonomia Erkidego osoan eta mugakide diren probintzietan lan egiten du, ECO Friendly garbiketaren aldeko apustu garbiarekin, pertsonentzat osasungarriagoa eta ingurumena errespetatzen duena. Gizarte Erantzukizun Korporatiboarekin lotutako bi kontzeptu horietan oinarrituta, hobekuntza garrantzitsuak lortzen dira bezeroen funtsezko adierazleetan (esate baterako, Michael Page, Satlantis, Autonervión edo Bilbao Basket).

Riverak baditu **kalitate-kudeaketako ISO 9001 ziurtagiria** eta **ingurumen-kudeaketako ISO 14001 ziurtagiria**.

Gainera, 2015ean Instituto Técnico Español de Limpieza (ITEL) institutuak **garbiketa- eta higienizazio-zerbitzuko bikaintasunaren saria** eman zion Riverari, bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzuetako teknika aurreratuenen aplikazioaren erakusgarri.

EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOAREN ESKAKIZUNAK

[BATZORDEAREN \(EB\) 2018ko maiatzaren 2ko 2018/680 ERABAKIAK – barrualde-garbiketako zerbitzuetarako EBaren etiketa ekologikoaren irizpideak ezartzen dituenak](#)– arautzen ditu barrualde-garbiketako zerbitzuek **Europako Etiketa Ekologikoa** lortzeko bete beharreko irizpideak (adibidez, Riveraren ECO Friendly zerbitzuek bete beharrekoak). Erabaki horrekin bat etorriz, Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko, honako hauek egin behar ditu zerbitzuak:



- Ingurumen-arloko legeria betetzea, baita aplikatu beharreko sektoreko eta lan-arloko legeria ere.
- «Barrualdeko garbiketako zerbitzua» izatea eta merkataritza-erakinen, eraikin instituzionalen, sarbide publikoko beste eraikin batzuen nahiz egoitza pribatuen barruan egindako garbiketa profesionaleko ohiko zerbitzuak barne hartzea.
- Nahitaezko 7 irizpideak betetzea:
 - M1 irizpidea: Ingurumen-inpaktu txikiko garbiketa-produktuak erabiltzea
 - M2 irizpidea: Garbiketa-produktua dosifikatzea
 - M3 irizpidea: Mikrozuntzezko produktuak erabiltzea
 - M4 irizpidea: Langileak prestatzea
 - M5 irizpidea: Ingurumen-kudeaketako sistema baten oinarriak
 - M6 irizpidea: Eskatzailearen lokaletan hondakin solidoak sailkatzea

- M7 irizpidea: EBko etiketa ekologikoan agertu beharreko informazioa
- Gutxieneko 14 puntuko puntuazioa lortzea 12 hautazko irizpideko batera batekin alderatuta.
- Kontabilitate-erregistro bereizi baten mende egotea operadore berak eskaintako Etiketa Ekologikorik gabeko beste zerbitzu batzuekiko.
- Nahitaezko 7 irizpideak betetzeaz gain, Riverak aukerako irizpide hauek ere betetzen ditu:
 - O1 irizpidea: Ingurumen-inpaktu txikiko garbiketa-produktuak neurri handian erabiltzea.
 - O2 irizpidea: Diluitu gabeko garbiketa-produktu kontzentratuak erabiltzea.
 - O3 irizpidea: Mikrozuntzeko produktuak neurri handian erabiltzea.
 - O5 irizpidea: Xurgagailuentzako energia-efizientzia.
 - O6 irizpidea: zerbitzu-hornitzailearen ISO 14001 erregistroa.
 - O7 irizpidea: Garbiketa-lekuetan hondakin solidoak kudeatzea.
 - O8 irizpidea: Zerbitzuaren kalitatea (ISO 9001).
 - O9 irizpidea: Norberaren ibilgailuko flota edo eskatzaileak alokatutakoa (ibilgailu elektriko edo efizienteak).
 - O10 irizpidea: Arropa-garbigailuen edo eskatzaileak alokatutako jabetzaren efizientzia.
- Irizpide bakoitzaren justifikazio-dokumentazioa prestatu ondoren, organo eskudunak in situ bisita bat egin zuen ECO Friendly garbiketa garatzen den lekuetako batera, baita bulego zentraletara ere, irizpideak betetzen direla egiaztatzeko. Horren ondoren, **Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak, organo eskuduna** den aldetik, **Europar Batasunaren Etiketa Ekologikoa eman zion “ECO Friendly garbiketa”** zerbitzuari.

ZERBITZUAREN EZAUGARRI JASANGARRIAK

Behean, “ECO Friendly garbiketa” zerbitzuak betetzen dituen eta Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko aukera eman dioten ezaugarrietako batzuk azaltzen dira:

- Garbiketan erabilitako produktu guztiek Europar Batasunaren etiketa ekologikoa dute; beraz, ahalik eta gehien minimizatzen da produktu horien erabilerak ingurumenean duen inpaktua.
- Garbiketaz arduratzen diren langileek prestakuntza jaso dute, eta garbiketa-produktuen dosifikazio egokiari buruzko informazioa dute.
- Garbiketa-produktuen % 100 formatu kontzentratuan aurkezten dira.
- Erabiltzen diren ehungintza-produktuak % 100 mikrozuntzezkoak dira.
- Riverak hondakin-mota jakin batzuk bereizteko eta behar bezala kudeatzeko sistema bat du.
- Paperezko produktu guztiek Europar Batasunaren etiketa ekologikoa dute.



- Eskaintako zerbitzua estaltzen duten ingurumen-kudeaketako sistema bat (ISO 14001) eta kalitatea kudeatzeko sistema bat (ISO 9001) ditu.
- Enpresak garraio-plan bat du, erregai-kontsumoak kontrolatzen dituena eta murrizketa-helburuak proposatzen dituena.
- Erabiltzen diren arropa-garbigailuak A+++ motakoak dira, eta uraren erabilerarako efizientzia-eskakizunak betetzen dituzte.

- Produktu kimikoen % 85 murriztea eta erabilitako garbiketa-produktuen osasunerako kaltegarriak diren elementu guztiak kentzea.
- Prestakuntza-protokoloak eta -planak lantzea, eguneroko lanean jarrera ekoarduratsua ahalbidetzeko Informazio Ez Finantzarioaren Egoeraren txostena hobetzeari begira; eta aholkularitza eskaintzea eta hobekuntza-proposamenak egitea bezeroarentzat eta bere interes-taldeentzat funtsezkoak diren Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren adierazleei dagokienez.

ZERBITZUAK LORTUTAKO INGURUMEN-ONURAK

Aurreko atalean adierazitako ezaugarriei eta Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko beharrezkoak diren beste batzuei esker, ingurumen-onura hauek lortzen dira:



- Riverak ECO Friendly garbiketaren bidez eskainitako garbiketa-zerbitzuek –Europako Etiketa Ekologikoaren bidez ziurtatuak direnez– bermatzen dute garbiketa-produktu guztien % 50 gutxienez I motako ingurumen-etiketaren batekin ziurtatuta egotea; eta, gainerako produktuei dagokienez ere, ingurumen-irizpide espezifikoak eskatzen dira. Ezaugarri horiek dituzten produktuak erabiliz gero, **ohiko garbiketa-produktuetan dauden substantzia toxikoek ingurumenean**

eta kontsumitzaileengan izan dezaketen inpaktu kaltegarria saihesten da. Era berean, enpresak bere langileen ongizatearekin eta segurtasunarekin duen konpromisoa erakusten du, substantzia toxikoekiko esposizioa murrizten duelako.

Europako Etiketa Ekologikoa duten garbiketa-zerbitzuek **detergenteak beharrik gabe gehiegi erabiltzea saihesten dute**; izan ere, eskatzen da ziurtatutako enpresek langileak trebatzea eta erabilitako garbiketa-produktuen dosifikazio egokia, diluzio-tasen erabilera egokia eta zikloen eta tenperaturen erabilera egokia bermatzeko jarraibideak ematea, langileek garbiketa-prozedura egokiei buruz duten kontzientzia areagotuz.



ECO Friendly garbiketak beste **garbiketa-zerbitzu batzuek baino ur gutxiago kontsumitzen du**, garbiketarako erabiltzen dituen ehunezko osagarriak (oihalak eta lanbasak) mikrozuntzezkoak direlako.

Europako Etiketa Ekologikoa hondakinak behar bezala kudeatzeko eta ezabatzeko baldintzak ezartzen ditu; beraz, Riveraren ECO Friendly garbiketak bitartekoak eskaintzen ditu langileek lokaletan sortutako hondakin solidoak kategoriatan sailkatzeko, instalazioen arabera tratatzeko edo hondakinak kudeatzeko nazioko nahiz tokiko praktiken arabera ezabatzeko. Eskakizun horiek **hondakin-ezabatzea efizientziaz kudeatzea errazten dute**, uraren, lurzoruaren eta airearen kutsadura murriztuz.

Etiketa Ekologikoa duen zerbitzuan gutxieneko A++ motako garbigailuak erabiltzen direnez baietak, lanbasak edo erabilitako mopak garbitzeko, **energia modu efizienteagoan erabiltzea** lortzen da. Gainera, ECO Friendly zerbitzuko garbigailuek uraren erabileraren efizientzia-eskakizunak betetzen dituzte, **alferrikako ur-kontsumoa saihestuz**.



Riverak, ISO 14001 arauaren araberrako ingurumen-kudeaketako sistema duenez, Etiketa Ekologikoarekin zerbitzua ematean bere ingurumen-jarduna eta -aurrerapena **monitorizatu eta neurtu ditzake, ingurumen-inpaktua murrizteko helburuak etengabe** definitzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

- Europako EURO 6 isuri-araua betetzen duten ibilgailuak erabiliz, bezeroaren kokapenetatik eta kokapenetara egin beharreko garraio posible batek sortutako kutsatzaileen isuriak murrizten dira. Era berean, garraio-plan bat erabiltzen denez, zerbitzuari lotutako erregai-kontsumoa minimizatzen da.
- Gai kimikorik eta produktu urratzaile nahiz toxikorik gabe garbitzeak giro produktiboagoa sortzen laguntzen du, pertsona osasuntsu eta zoriontsuagoekin. Era berean, material mota desberdinetarako kaltegarriak ez diren teknika berritzaileak erabiltzeak espazioen eta altzarien babesik handiena bermatzen du.
- ECO Friendly garbiketa ahalik eta efizientziarik handienarekin egiten da bezeroaren instalazioetako elektrizitatea eta ura erabiltzeari dagokionez, fakturretan eta isurietan zuzeneko murrizketa lortuz.



INFORMAZIO
KONTAKTUA

GEHIAGO

LORTZEKO

FRANCISCO JAVIER RIVERA HERNÁNDEZ
Zuzendari nagusia

94 439 30 03

jrivera@limpiezasrivera.com

ORGANO ESKUDUNA - EUROPAKO
ETIKETA EKOLOGIKOA

EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN
JASANGARRITASUNEN
SAILBURUORDEZTA

944 230 743

etiqueta.ecologica@ihobe.eus

EB-KO PRODUKTUEN KATALOGOKO ERREGISTROA - ECO-FRIENDLY
ZERBITZUA

